

2016KO IRAILAREN 19AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko zazpirak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- 2016KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN 3/2016 KREDITU ALDAKETA.

2.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

3.- GALDE ERANTZUNAK

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izaguirre Arocena Jna. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Maria Pilar Elorza Inchausti And. (Zegama Lantzen).

Izaskun Igoa Arizcorreta And. (Zegama Lantzen).

Juan José Gorrochategui Larrea Jna. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu Jna. (Zegama Lantzen)

Imanol Garmendia Iruretagoyena Jna. (EH Bildu).

Urko Gomez Ropón Jna. (EH Bildu).

Olaia Elorza Iñarra And. (EH Bildu).

Maria Luisa Gorrochategui Irastorza And. (EH Bildu).

EH ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Legezko bilkurakide denak bertaratu dira.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1.- 2016KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN 3/2016 KREDITU ALDAKETA.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan

ezarritakoarekin.

Era berean, Kontuen Batzorde Bereziak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz, honako hau erabaki du:

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
6	INBERTSIO ERREALAK	53.382,17
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		53.382,17

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	53.382,17
GUZTIRA		53.382,17

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

2.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 013/0716 erabakia, uztailaren 28koa, Estatuko Administrazioari erantzuna emanaz ekonomia eta finantza informazioa eskatu ondoren.
- 014/0716 erabakia, uztailaren 28koa, 9926 fakturen erlazioa onartuz, guztira 49.713,15 eurokoa.
- 015/0716 erabakia, uztailaren 28koa, 9896 fakturen erlazioa onartuz, guztira 35.000,00 eurokoa.
- 016/0716 erabakia, uztailaren 28koa, 9903 fakturen erlazioa onartuz, guztira 22.287,99 eurokoa.

- 017/0716 erabakia, uztailaren 28koa, 9885 fakturen erlazioa onartuz, guztira 17.473,77 eurokoa.
- 018/0716 erabakia, uztailaren 28koa, 1.967,21 euroko zenbatekoa duen transferentzien erlazioa onartuz.
- 019/0716 erabakia, uztailaren 28koa, 12.278,95 euroko zenbatekoa duen transferentzien erlazioa onartuz.
- 020/0716 erabakia, uztailaren 28koa, 8.602,30 euroko zenbatekoa duen transferentzien erlazioa onartuz.
- 021/0716 erabakia, uztailaren 28koa, 1.174,94 euroko zenbatekoa duen transferentzien erlazioa onartuz.
- 022/0716 erabakia, uztailaren 28koa, 3.502,58 euroko zenbatekoa duen transferentzien erlazioa onartuz.
- 023/0716 erabakia, uztailaren 29koa, 9969 fakturen erlazioa onartuz, guztira 3.352,29 eurokoa.
- 024/0716 erabakia, uztailaren 29koa, 11.393,70 euroko zenbatekoa duen transferentzien erlazioa onartuz.
- 025/0716 erabakia, uztailaren 29koa, 3.520,00 euroko aurrekontua onartuz, Aecom S.L.U. enpresari, 11. eremuko -Olaberria- ingurumen kontrolak egitea esleitzuz.
- 026/0716 erabakia, uztailaren 29koa, EEE-EVE eta HAZIrekin adostu ondoren, "Euskadiko landa ingurunearen baso eta biomasaren erabilera eta energia eraginkortasuna sustatzeko energia xedearekin" hitzarmena onartuz.
- 01/0816 erabakia, abuztuaren 3koa, San Bartolome jaietako baimenak bideratuz.
- 02/0816 erabakia, abuztuaren 3koa, San Bartolome jaietako baimenak bideratuz.
- 03/0816 erabakia, abuztuaren 3koa, San Bartolome jaietako baimenak bideratuz.
- 04/0816 erabakia, abuztuaren 3koa, San Bartolome jaietako baimenak bideratuz.
- 05/0816 erabakia, abuztuaren 3koa, San Bartolome jaietako baimenak bideratuz.
- 06/0816 erabakia, abuztuaren 5koa, San Bartolome jaietako baimenak bideratuz.
- 07/0816 erabakia, abuztuaren 8koa, San Bartolome jaietako baimenak bideratuz (herri afaria).
- 08/0816 erabakia, abuztuaren 8koa, San Bartolome jaietako baimenak bideratuz.
- 09/0816 erabakia, abuztuaren 8koa, gimnasioaren erabilpenaren ondoriozko tasen likidazioak onartuz (ekaina-uztaila).
- 010/0816 erabakia, abuztuaren 8koa, Ostatua eta Kasinoko uztaileko fakturak onartuz.

3.- GALDE ERANTZUNAK

- Alkateak, San Bartolome jaien balorazioa ematen du, orokorki balorazio ona eginez. Bilkurakideak gaiari buruz hitz egiten dute.
- M^a Luisa Gorrotxategi zinegotziak (EH Bildu), berdintasuneko teknikariarekin mantenduko den bilerari buruzko informazioa ematen du. Era berean, bideratuko diren

formakuntza eta informazio ekintzei buruzko informazioa ematen du.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko zortzirik eta hamabost minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2016kok

**O.E./ V°B°
ALKATEAK/EL ALCALDE**

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2016.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO